# Material arkeologikoa eta paleontologikoa entregatzea Gordailuan gordetzeko

Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Ondareari buruz indarrean dagoen araudia betez, nahitaezkoa da Gipuzkoako lurraldean aurkitzen den material arkeologikoa eta/edo paleontologikoa Gordailuan entregatzea

### Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
- Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusia
- Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzua

### Nori zuzenduta

- Aurkikuntza isolatuen aurkitzaileak.
- Baimendutako esku-hartze arkeologikoen zuzendaritza.

### Baldintzak

Gordailuan entrega daiteke eta ez dago eperik, urte osoan zehar egin daiteke.
Gordailuari entregatzeko gehienezko epeak, materiala aurkitzen denetik, honako hauek dira:

- Aurkikuntza isolatua: 15 egun
- Esku-hartze arkeologikoa: urtebete

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Material arkeologiko edo paleontologikoa Gordailuan entregatzeko eskaria (PDF)

### Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskabide inprimakia beteta
- Inbentarioa (Eusko Jaurlaritzak eskatutako gutxieneko eremuekin)
- Aurkikuntza isolatuak edo aztarnategi berriak badira, fitxa teknikoa ere aurkeztu beharko da.

### Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

### Internet bidezko eskaera

- Bide telematikoz: formulario elektronikoa online izapidetzea

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

### Zuzeneko arretarako bulegoak

**Pertsona fisikoak bakarrik**
**Arreta Zerbitzua**
Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia.
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 08:30- 18:30.Ostiraletan, 8:30-14:30. Abuztuan, astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30.
Telefonoa: 943 11 21 11

## EBAZPENA

### Ebazteko gehienezko epea

Gordailuan entrega daiteke eta ez dago eperik, urte osoan zehar egin daiteke.
Gordailuari entregatzeko gehienezko epeak, materiala aurkitzen denetik, honako hauek dira:

- Aurkikuntza isolatua: 15 egun
- Esku-hartze arkeologikoa: urtebete

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

### Honen bidez jakinarazten da

» Komunikazio elektronikoa » Telefono bidezko komunikazioa » Jakinarazpen elektronikoa

## ARAUDIA

6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
341/1999 Dekretua, urriaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan aurkitutako interes arkeologikoa edo paleontologikoa duten ondasunak garraiatu, entregatu eta gordailuan uzteko baldintzei buruzkoa.
Agindua, 2014ko abenduaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena,Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkitu diren eta arkeologia edo paleontologiarako interesgarriak diren ondasunak gordetzeko Gipuzkoako kultur ondare higigarriaren Zentroa (Gordailua) izendatzeko.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

### Informazio gehigarria

**ESKAERA**

- Esku-hartzearen zuzendaritzak edo aurkikuntza isolatua egin duen pertsonak entregaren berri emango dio Gordailuari, aipatutako kanalen bitartez eta, kasu bakoitzean, beharrezkoa den dokumentazioa bidalita.
- Gordailuko arkeologia arloko teknikariak data eta hitzordua hitzartuko ditu pertsona horrekin, materiala entregatzeko.
- Materiala entregatzen denean, bi aldeek "material arkeologikoa eta/edo paleontologikoa entregatu izanaren egiaztagiria" sinatuko dute.

**ERKATZE**A

- Arkeologia arloko teknikariek materialak eta inbentarioa erkatuko dituzte, egokiak diren ala ez egiaztatzeko.
- Akatsen bat egonez gero, gordailugilearekin harremanetan jarriko da zuzentzeko.

**GORDAILUAREN AKT**A
Entrega zuzena dela egiaztatu ondoren, "Material arkeologikoaren eta/edo paleontologikoaren gordailuaren akta" sinatuko da, eta gordailugileari eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaie.